



**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

ZATI KOMUNA
2023eko DEIALDIA

10/2023 EBAZPENA, otsailaren 9koa

2023/05/25

HISTORIA

**EPAIMAHAI ZK.:
KALIFIKAZIOA**



DEITURAK

IZENA

NANa

A aukera

GAIA: BIGARREN ERREPUBLIKA ETA GERRA ZIBILA
TESTUA: 1931ko KONSTITUZIOA

1 artikulua. **Espainia zeinahi motatako langileen errepublika demokratikoa da**, askatasunaren eta justiziaren erregimena. Bertako organo guztien botereak herritik eratorriak dira. Errepublika estatu oso bat da, udalen eta erregioen autonomiarekin bateragarria. (...)

2. artikulua. Espainiar oro berdinak dira legearen aurrean

3. artikulua. **Espainiako estatuak ez du erlijio ofizialik**

8 artikulua. Espainiako estatuak, txikiagotu ezin diren gaur egungo bere lurraldearen mugen barruan, probintzietan erkideturiko udalek eta autonomia araubidean eraturiko erregioek osatzen dute (...)

12 artikulua. Erregio autonomoaren estatutuaren onespenerako, ondoko baldintzak bete behar dira:

1.- Udalen gehiengoak proposatu behar du (...)

2.- Gutxienez ere erregioeko hautesle-eroldan izena emandako hautesleen bi herenek (...) onartu behar dute (...)

3.- Gorteen onartu behar dute (...)

Atariko titulua. Xedapen orokorrak, 1931ko Espainiako Konstituzioa

1. **Testuaren laburpena.** (3 puntu).

2. **Azaldu ezazu zure hitzekin testuan beltzez agertzen diren bi esaldiak eta kontzeptu hauek:** “Nekazaritza-erreforma” eta “Fronte Popularra”. (2 puntu).

3. **II. Errepublika:** Etapak. (2 puntu).

4. **Espainiako Gerra Zibila:** Hasiera, kausak eta ondorioak. (3 puntu).



**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

ZATI KOMUNA
2023eko DEIALDIA

10/2023 EBAZPENA, otsailaren 9koa

2023/05/25

HISTORIA

B aukera

GAIA: BORBOIEN ERREFORMISMOA
TESTUA: NEKAZARITZAREN LEGEARI BURUZKO TXOSTENA

Lurretan erabilitako kapitalek irabazi mardula ematen dutenean, lurren espekulazioa erabilgarritasun eta probetxuzko espekulazioa da, Ipar Amerikan bezala; irabazi ertaina ematen dutenean oraindik ere zuhurtzia eta segurtasuneko espekulazioa da, Ingalaterran bezala; baina irabazia posible den minimora murrizten denean, inork ez du horrelako ezarpenik egiten edota soilik harrokeria eta banitatezko espekulazio gisa egiten da, Espainian bezala.

Horregatik, arren, gorentasun horrek erabat deusezta bitza hainbeste herri-lur antzutasun betierekora kondenatzen dituzten lege barbaroak; jabego pribatua diru-gosearen eta nagikeriaren bazka bihurtzen dutenak; ardiak gizonak baino nahiago izaki, gehiago zaindu dituztenak haiek janzten dituzten artileak elikatzen dituzten aleak baino; jabego pribatua betiko kidego eta familia boteretsu gutxi batzuen esku utzirik, jabego librea eta haren produktuak garestitzen dituztenak, eta harengandik urruntzen nazioaren industria eta kapitalak (...). Arren, gorentasun horrek jabeen klasea hezi beza Estatuaren prosperitatearen oinarri diren ezagutza erabilgarrietan, eta langileen klasearekin perfektzionatu beza hezkuntza horren xedea, jakintsuen ikerketetatik argiren bat etorri ahal dadin (...).

Gaspar Melchor de JOVELLANOS: Nekazaritzaren legeari buruzko txostena (euskarara itzulia)

- 1.- **Testuaren laburpena.** (3 puntu).
- 2.- **Azaldu ezazu zure hitzekin testuan beltzez agertzen diren bi esaldiak eta kontzeptu hauek:**
“Ilustrazioa” eta “Despotismo Ilustratua”. (2 puntu).
- 3.- **Azaldu ezazu Ondorengotza Gerra:** Borboien lehen erreforma politikoak. (3 puntu).
- 4.- **Borboiak egiten ahalegindu ziren erreforma ekonomikoak.** (3 puntu).



**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

ZATI KOMUNA
2023eko DEIALDIA

10/2023 EBAZPENA, otsailaren 9koa

2023/05/25

HISTORIA



**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

ZATI KOMUNA
2023eko DEIALDIA

10/2023 EBAZPENA, otsailaren 9koa

2023/05/25

HISTORIA



**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

ZATI KOMUNA
2023eko DEIALDIA

10/2023 EBAZPENA, otsailaren 9koa

2023/05/25

HISTORIA